

Donostian, 2021eko apirilaren 9an

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

### MOZIO ARRUNTA, DOMUSVI TALDEAREN ESKANDALUARI ETA DONOSTIAN DUEN PRESENTZIARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal talde politikoaren bozeramaile Aitzole Araneta naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluekin bat etorrita, DOMUSVI TALDEAREN ESKANDALUARI ETA DONOSTIAN DUEN PRESENTZIARI BURUZKOA buruzko honako MOZIO hau aurkezten dut OSOKO BILKURAN eztabaidatua izan dadin.

### JUSTIFIKAZIOA

Espainiako zahar etxeen jabe talde handienak, DomusVik, bere diru sarrerak handitu ditu hileta enpresei komisioak kobratuta, hildako adinekoen senideek beren zerbitzuak kontratatzea errazteagatik. *Infolibrek* argitaratutako informazioaren arabera (Mémora taldearekiko akordioa jasotzen du), 700 euro ere izaten dira. Informazioaren arabera, bi enpresek kontratu bat sinatu zuten 2015erako, eta kontratu hori 2018an berritu zuten.

Donostian DomusVi taldeak kudeatzen dituen bi egoitza daude, Ategorrietako Villa Sacramento egoitza eta Altza auzoko Berra egoitza. Biek dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutako plazak.

Gure taldekoek uste dugu ezinbestekoa dela argi izatea horrelako jokabideak Donostian ere egin ote dituzten pandemia garaian. Horregatik aurkezten dugu honako

### MOZIOA ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari hertsatuki eskatzen dio azter dezala Domus VI-k komisiorik kobratu ote duen Donostian dituen egoitzetako hildakoak ehorztetxe jakin batera eramateagatik.
2. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari hertsatuki eskatzen dio, Domus VIk horrelako komisioak kobratu dituela baieztatuz gero, enpresa horren aurkako neurriak har

ditzala, ahalik eta lasterren ken dezala egoitza horietan itundutako plazen kontratua eta jar  
ditzala abian hildakoen senideei ustez kobratutako dirua itzultzeko mekanismoak.

Aitzole Araneta Zinkunegi,

Elkarrekin Donostiaren bozeramailea.